



Eginkizuna

HERRI AMETSA Ikastola Guraso Koop.E.

Guardaplata 28 - 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20 / 39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Ikastolen mugimenduak sortutako erakunde soziala da Herri Ametsa Ikastola. Gurasoen Hezkuntza Kooperatiba da eta Hezkuntza Komunitatearen inplikazioa Ikastolaren egitasmoetan dago. Erakunde gisa, errealitate historikoan, sozialean, politikoan, ekonomikoan eta kulturean integratuta dago.

Herri Ametsa Ikastola ikastetxe euskalduna da, askotarikoa eta integratzailea, eta politika eta erlijio ororekiko independentzia du.

Ikastolaren xedea hauxe da: heziketa bukatutakoan, geure Curriculumaren ildoaren arabera, ikasleak gazte euskaldunak izatea, arduratsuak, autonomoak, kritikoak, solidarioak, demokratikoak, parte hartzaileak eta kulturaz ongi jantziak.

Hori guztia gauzatzeko, proiektuan konprometitutako talde profesional egonkor eta prestatua du Ikastolak, egitasmo berritzailea duena, teknologia berrien aldeko sentiberatasun berezia agertzen duena eta metodologia motibatzailea, eraginkorra eta esanguratsua darabilena, ikasleen behar, aniztasun eta adinei egokituta.